

Rosa eta Ana Iziz ahizpak “Historia de las mujeres de Euskal Herria” (Txalaparta) trilogiako lehen liburuaren egileak dira. 500 orrialdetik gora dituen trilogiaren lehen liburuak historiaurrea, erromanizazioa eta Erdi Aroa aztertzen ditu, Nafarroako Erresumari arreta berezia eskainiz. Harrera ezin hobea izan du lehen liburu horrek, eta bigarren edizioa ere kaleratzear da dagoeneko. Hori bai, Iziz ahizpak trilogiako hirugarren zatiaeren prestaketan guztiz murgilduta daude uneotan, XIX. mendetik abiatuta. Emakumea historiatic bertatik ere desagerrarazia dagoela salatzen dute Iziz ahizpek eta populazioaren erdiak bizitakoa berreskuratzearen garrantzia aldarrikatzen dute.

Euskal Herriko emakumeen historia biltzea ez da lan txikia. Nolatan hasi zineten?

ANA IZIZ: Beste lan batzuk eginak genituen, herri mailakoak. Emakumeak ez zirela agertzen ikusten genuen. Ez zegoen emakumeen inolako arrastorik topatzeko modurik. Gabezia hori konpontzea beharrezkoa zela ikusi genuen. Izugarrizko gabezia daude eta oso zaila da hori konpontzea. Adibidez, ezin duzu prozedura judizialen aktetara zuzenean jo, emakumeak ez direlako agertzen. Hori dela eta, beste bide batzuetara jo behar izan dugu: margoak, eskulturak, arkitektura... Legeak, foruak eta abar ere aztertu izan ditugu. Oso zaila izan zen dena kokatzeko lehen eskema egitea. Eta eskema hori betetzea ere zaila da, beti gizonen ahotsa entzunarazten digutelako. Zeharkako iturriak dira, baina egoera deskribatzen dute.

ROSA IZIZ: Askotan, lerro artean ere irakurri behar izan dugu.

A.I.: Erdi Aroari dagokionez, foruen azterketa oso sakona egin dugu. Nafarroako foruetan zentratu gara. Donostiakoak eta Gasteizkoak ere aztertu ditugu, Nafarroakoetatik eratorriak direlako. Arauak eta ordenantzak ere aztertu ditugu.

«Emakumeen historiaren azterketa oso berria da, 80ko hamarkadakoa, eta batez ere anglosaxoiek egindakoa. Estatu espainolean katedratikoek mespretxatu egin dute»

«Ez dugu uste euskal matriarkaturik eman zenik, gizonak alboratzea suposatuko lukeelako. Baina historiaurrean matrismoa eman zela uste dugu, non denak maila berdinean ziren eta ez zen mendekorik»

R.I.: Baina abiapuntua Euskal Herrian garaiotako emakumeen egoerari buruz ez dagoela ezer idatzia izan da. Frantzian eta Ingalaterran landu izan dute emakumeen historia. Frantzian historia soziala eta genero-historia askoa landu dute, emakumeek idatzita. Baina gure artean ez.

A.I.: Egia esan, genero-historia edo emakumeen historiaren azterketa oso berria da. Korronte hau 80ko hamarkadan hasten da, anglosaxoiekin. Eta garatzen ari da orain. Estatu espainolean, berriz, katedratikoak oso atzerakoiak ziren eta emakumeen historia espezifikorik ez zela esaten zuten. Mespretxatu eta baztertu


egiten zuten, maila eskasekoa izango balitz bezala. Egunerokotasunaren historia ere baztertu izan dute

R.I.: Unibertsitateetan egin izan dena, eta horretan segitzen dute, historia politikoa da, alde soziala baztertuz. Arlo ekonomikoa ere asko landu dute.

A.I.: Guk jendea nola bizi zen kontatu nahi izan dugu: zertan egiten zuen lan, nola dibertitzen zen... Etnografiarekin lotura duen historia da. Oso idatzi gutxi daude. Baina arauak izan baidira. Eta arauak ezartzen baziren behar bati erantzuten ziotelako da. Jarduera batzuk zigorretza kasu. Hortik jo dugu.

R.I.: Foruen azterketari dagokionez, emakumeei ezarritako arauak aztertzea oso lan nekeza izan da. Baina informazio asko lortu dugu. Zigorak nolakoak ziren azaltzen da. Beraz, jendarrea nolakoak zen adierazten da. Oso interesgarria izan da. Sorpresa izan da. Ez genuen espero informazio hori eskuratu ahal izatea.

A.I.: Bai, gauza asko espero genituen, baina espero ez genituen beste asko ere topatu ditugu. XVI. mendeko informazioa ugari topatu dugu. Prozedura judizial asko ditugu eta emakumeen ahotsa entzun ahal izan dugu. Kargu publikorik izan gabe segi-



«Euskal Herriko historian emakumeen arrastorik ez zegoela ikusita, gabezia hori konpontzen saiatu gara»

tzen zuten. Artisauak izateko eskubidea ere ukatua zuten.

Gaztelaren 1512ko konkistaren ostean artisau izatea lortu zuten emakumeen kasuak aipatzen dituzue liburuan, baina oso kasu ezohikoak dira.

R.I.: Bai, 1512ko Gaztelaren konkistaren ondoren, badaude 300 nafar emakume senarren negozioak mantentzen saiatzen direnak. Negozio horiek semeentzako mantentzen saiatzen dira, ezin ziren-eta beraientzat izan, semeentzat baizik. Trikimailu bat zen, denbora tarte jakin batez lanean jarraitu ahal izateko. Baina ezohiko egoera batez ari

gara, 1512an izandako konkistaz. Egia esan, maiz gertatzen ziren horrelako hondamendiak. Baina ezohiko egoerak dira. Euskal sasmatriarkatuan ere azken hitza gizonak zuen. Emakumeek behi bat saltzeko ahalmena zuten, baina lursail bat erosteko erabakia gizonezkoarena zen.

Artxiboetan lan eskerga egin duzue. Bost urte behar izan dituzue liburua prestatzeko.

A.I.: Nafarroako Artxibo Orokorean izan gara. Elizbarrutikoan ere bai, eta azken hori oso interesgarria da, Nafarroa ez ezik Donostia eta Gipuzkoa osoa ere biltzen baititu. Nafarroa aztertu dugu gehien, baina beste herrialdeetako informazioa ere eskuratu dugu. Bizkaian, adibidez, 1200. urtetik Gaztelaren menpe daude eta legeak arrotzak dira. Bizkaian eta Araban Toroko legeak ezartzen dizkiete. Nafarroan, berriz, lege propioak ditugu, Gorteak edo erregeak egindakoak. Zentzu horretan, Nafarroako legedia askoz ere interesgarriagoa da. Herrietako artxiboetara ere jo dugu. Donostian ere izan gara. Baita Madrilen ere.

Zer-nolako egoeratan aurkitu dituzue artxiboak?

A.I.: Dokumentu asko desagertu egin dira. XIX. mendeko gerrak aztertzen ari gara orain eta emakumeak ez dira azaltzen, ez izan ez zirelako, paperak desagertu egin direlako baizik. Familiaren «izen onaren kontra» jotzen zuten dokumentuak desagerrarazi egin dituzte, batzuk XX. mendean. Gerra Zibileko artxiboak ere suntsitu egin zituzten. Berdin karlistaldietako edo Independentziako gerrako artxiboekin. Zailagoa da XIX. mendeko informazioa eskuratzea XVI. mendekoa baino. 1840 baino lehen Nafarroako Gorteko artxiboak ziren, gero epaitegietara pasa ziren. Orain San Roken dira eta hor informazioa ukatzen dute. Gerra Zibileko dokumentazioa ukatzeko aitzakia ehun urte ez direla pasa da.

R.I.: XVI. mendeko dokumentuekin izan dugun arazoa desagertu egin direla da. Denbora asko pasa da eta paperaren kontra

aritzen dira xomorroak, hezetasuna eta uholdeak. Artxiboen egoera kezagarria da. Oibarren etxe bat dugu eta bertako artxibora joan nintzen lehen aldian oso gaztea nintzen. Bada, «hemen duzu artxiboa» esan zidaten. «Non?», erantzun nien. «Hemen duzun pilo hau da. Har ezazu nahi duzuna». «Ez dut ezer hartu nahi, liburuak non dauden baino ez dut jakin nahi», esan nien. Uholde bat izan zen eta idazkariak gela berotzeko sua ematen zien paperrei. Guk hori ikusi dugu...

A.I.: Ez zen ezohikoa. Herri guztietan antzekoak pasa dira.

R.I.: Izugarria da. Gure historia osoa erre da! Dramatikoa da. Orain jende ugari etxera eramane zituen paperak itzultzen ari da. Norbaiten aitona etxera eramane zituen paperak eta orain ez dakite zer egin horiekin. Idazkariak, alkateak edo zinegotziek nahi zutena hartzen zuten. Edo udal langileek.

Desastre hutsa, beraz.

BIAK: Bai. Eta 80ko hamarkada bitarte izan da horrela. Beraz, dokumentazioa aurkitzea oso zaila da. Ondasun komunalekin gertatu dena itzela da. Fotokopia asko egin ditugu behintzat hori mantentzeko asmoarekin. Bestela galdu egingo direlako.

Liburuaren hitzaurrean populazioaren erdia ez dela ikusten aipatzen duzue. Azken urteotan eskubide berdintasunaren aldarrikapena indartzen ari da, baina historian bazterketa oso errotuta dago.

A.I.: Egin beharreko bidea luzea da. Azken ehun urteotan aurrea asko egin dugula dirudi, eta hala da, baina atzera egitea ere erraza da.

R.I.: Nire ustetan atzera egiten ari gara eta historiak erakusten du badirela horrelako garaiak. Oso zibilizatuak eta garatuak garela dirudi hezkuntza unibertsala delako, baina balio atzerakoiek bere horretan diraute. Zerbait gaizki egiten ari gara, ez baita normala egun oraindik genero indarkeria hain bortitza izatea. Egia da orain emakumeak toki guztietan gaudela, baina



Argazkiak: Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

ROSA ETA ANA IZIZ

HISTORIALARIAK

«Historia de las mujeres de Euskal Herria»
(Txalaparta) trilogiaren lehen alea idatzidute Iziz ahizpek populazioaren erdiaren bazterketarekin amaitzeko asmoarekin.

Martxelo Diaz Aristizabal



benetan erabakiak hartzen diren lekuetan ez gaude. Botere ekonomikoaren guneetan ehun gizoneko emakume bat dago. Gehien jota. Politikagintzan aurrerapausoak eman dira eta Euskal Herrian emakume politikari oso onak izan ditugu.

Euskal matriarkatua aipatu duzue. Zapalkuntza estaltzeko erabiltzen den topikoa al da?

R.I.: Bai, hala da. Dena den, historiaurreko jendartean berdintasuna handiagoa zela uste dugu. Ez dugu uste matriarkatua eman zenik, horrek gizonen alboratzea suposatuko lukeelako. Eta horrelakorik ez zen eman. Matrismoa aipatzen dugu. Bizimodua komunitarioa zen eta rolak berdintasunean oinarrituta banatzen ziren. Gizonak ehizan aritzen ziren, eta, emakumeak, ehungintzan, nekazaritzan (emakumeek asmatu zuten), buzingintzan (gero hortik bota bazituzten ere). Lanen banaketa bazen, baina denak maila berdinean ziren eta ez mendekorik. Ez zegoen jabego pribaturik. Indoeuroparrak etorri ziren, eta, haiekin, gerra, indarkeria eta

«Erdi Aroan bizitza guztientzat zen latza, baina bereziki emakumeentzat: jendartean zeuden lanik okerrenak egiten zituzten, okerren ordainduta zeudenak. Askotan janaria baino ez zieten ematen»

emakumeen bazterketa. Historiaurreko kultura badira alor femeninoak garrantzia zuela erakusten duten margoak. Ez zuten ernalkuntza ulertzen eta emakumea mitifikatu egin zuten. Lurrarekin lotzen zuten. Horregatik zituzten jainkosak. Bizitza gurtzen zuten. Gero, greko eta erromatarrekin parekotasun hori gehiago desegin zen, eta oraindik ondorioak pairatzen ditugu. Patriarkatuaren baloreak ezarri ziren, bikotearen kontzeptua sortu zen, seme-alaben aita dela ziurtatzeko gizonak emakumea kontrolatzen du... Lehen haurrak komunitatearenak ziren.

Nafarroako Erresuman ere emakumeen egoera ankerra zen: miseria, sarri behartutako prostituzio, soldata txikiagoa...

A.I.: Bai. Ezin zuten kargu publikorik izan eta hezkuntza ere ez zuten. Beraz, etxe barnean baino ezin ziren aritu. Poliki-poliki XIII. mendean hasten dira etxe kanpoan lan egiten, baina gizonen mende: peoi, mahastietan kimatutako adaxkak biltzen, jornalari, zerbitzari... Jendartean

zeuden lanik okerrenak. Eta okerren ordainduta zeudenak. Askotan janaria baino ez zieten ematen. Zubiak eta gazteluak eraikitzen lan egiten zuten, posturik okerrenetan; lohia kentzen zuten, ura eraman, adreiluak garraiatu... Eta beti gizonetzkoen erdia ordaintzen zieten. Hori araututa zegoen Kontuen Ganberan. Emakume batek mahastiak kimatzen zituzten zazpi gizonen adaxkak biltzen zituen. Hori asko da. Indar asko behar zuten lan astunok egiteko.

R.I.: Iruñeko Katedraleko lanetan aritu ziren emakumeak badira, harriak eta hondakinak eramaten. Horrekin batera, urtero seme-alaba bat izan behar zuten. Hiltzen ziren arte. Oso garaiz izaten zen hori.

Bitxia egiten da egungo garairekin alderatuta sexualki askoz askeagoak zirela.

A.I.: Bai. Hain latza eta motza zen haien bizitza ez zutela ezertarako astirik. Ez zuten inolako entretenimendurik. Sexuan, edonon aritzen ziren. Elizetan bertan. Normala zen. Bost eguneko penitentzia ezartzen zie-

ten. Kontuan izan behar da egun osoan argia eta beroa zuen toki bakarra zela eliza.

R.I.: Askeagoak ziren alor horretan. Baina ez zuten beste aukerarik. Ihesbide bakarra zen. Entrenimendu bakarrak haien artean harreman sexualak izatean, jatea eta edatea ziren. Ez zegoen besterik. Oinarritzkoa zen. Ez zuten asko jateko ahalmenik ere. Sexua hor zegoen beti.

A.I.: Ezin dugu imajinatu ere egin zein latza zen bizimodu hura. Eguzkia ateratzen zenean esnatzen ziren eta ezkututzen zenean lokartzen ziren. Emakume bakoitzak etengabe atzetik zituen hiruzpalau seme-alaba. Ez zegoen eskolarik. Ez zegoen ezer. Inork ez zuen etxerik. Familia osoarentzako gela bat alokatzen zuten. Eta ordaindu ezin zuten, bota egiten zituzten. Kanean edo txaboletan lo egin behar zuten. Denok batera. Suaren garra mantentzea lan esker ga zen eta auzokoen artean banatzen zuten. Egur bila egunero joan beharra zuten. Zaharrei janari gutxiago ematen zieten produktiboak ez zirelako... Oso bizimodu zail eta gogorra zen.